

Mendi Bideak Euskal Kulturaren Ezagupide Bezala

Teresita Irastorza

Por los caminos de nuestros montes en busca de nuestra cultura... Unas reflexiones de Teresita Irastorza, esa zaldibitarra de 19 años que acaba de publicar GABEZIAK, un pequeño libro de poemas en el que se mezclan un cierto aire de tristeza y una busca de aproximación al lector, con un estilo propio muy cuidado.

Ez dut inoiz mendiei buruz artikulurik idatzi, agian, ez dut bestelako asko ere izkriba, eta beldur piska bat badut, bai, orain egiten dudanak ez ote duen mendizaletasun itxura haundirik, zentzu klasikoan behinik behin.

Mendizaleok, hots, mendia eta natura maite dugunok eta ez mendia asko joaten direnak bakarrik, kontuan har behar genituzke, mendietan zehar ez ditugula txoriak bakarrik, inportantzia haundikoak ditugularik, dudarik gabe.

Eta mendiei buruz sarri hitz egin delarik (mendiak pake toki bezala, hiri haundietatik, jendetza abstraktoetatik, industria ke eta hotsetatik alde egitera, posible den toki bukoliko bezala), ausartzen naiz ni ere zerbait izkribatzera, halaber gauza berririk esateko pretentsiorik gabe.

Lehen aipatu dudan bezala, eskotan zebait mendizale jarrera, mendia menperatze jarrera bezala har daiteke: harriz harri, arriskua bentzutuz bentzutu daiteken mendiari buruz izan duena. Hiriak zapaltzen gaituenez, morroi bihurtzen gaituenez, joan

gera, askotan, mendira, mendia geure oinpetan sentitzearen plazerra gozatzea.

Baina badago beste jarrerarik, hots, ez mendia menperatzea bakarrik, ez mendia deporte leku bezala bakarrik, mendia eta natura ezagupide bezala, herri kultura baten ikur bezala ere, galtzen ari zaigun kultura baten izkuta leku bezala baita.

Historian zehar ikus daiteke, eta oso garbi euskara eta euskararen gibeltearen historian, nola mendiak eta natura izan diren sarri euskaltasuna gorde den una bakarrak. Zer dugu bestela «Valle de Aran» bezala mapetan azaltzen dena? Garbi asko dago, toponimo eta apeliduak gogoratzea besterik ez dugu, euskaraz haran esaten dena, itzul daitekela erderaz «valle»z. Hor dugu bada, esate baterako, dela makina mende eta urte euskara galdu zen tokian euskal toponimoa.

Gauza hauek direla eta kontu gehiago izan behar genuke geure mendietan gabiltzanean geure mendien izen eta toki sakratuekin, sakratutzat har daitezkelako galtzen ari garen neurrian.

Hildo honetatik aditzera eman beharrezko iruditzen zait zenbait izen aldaketak ekar dezakeen kaltea. Eta mendí, iturri, zelaí, saroi eta erreka izenak gordetzeko ez dugu kontserbadurismo errazoirik, kontserbazio arrazoiak baizik.

Hor dugu adibidez Ñañarriren kasua. Nork daki gaur egun Zaldibia, Abaltziketa eta Amezketa jendeaz kanpora zer mendí dugun Ñañarri? Modernismoaren eraginez edo gaizki konprenitutako berrikeriaren eraginez hasi zitzaion Ñañarriri Txindoki deitzen, eta orain arte Ñañarri (Larraun Harri Iztuetaren Gipuzkoako Kondairan) zena, orain Txindoki dugu. Horrela dira gauzak, baina beti dugu bidez aldatzeko aukera.

Hau adibide bat besterik ez dugu, baina zabalki har behar genuke. Eta serio kontsidera mendiak euskal kultur kutxa aberatsak ditugula eta geure kultura eta izatearen sustraiak aurki nahi baditugu, garrantzi haundikoa dugula, geure mendiak kultura bide bezala ere onartzea.